

DBUSEK 13, 37 ETA 41 LINEETAN ORDUTEGI ETA GELTOKI BATZUK ALDATUKO DITU ZERBITZUA HOBETZEKO

2014ko irailaren 1etik, astelehenetik, aurrera, Dbusek 13, 37 eta 41 lineetako geltoki eta ordutegi batzuk aldatzeko neurri berriak jarriko ditu martxan. Erabiltzaileek eskatuta hartuko dira neurri horiek eta autobus linea horietan zerbitzua hobetzea eta herritarrek garraio publikorako sarbide hobe izatea eragingo dute.

Horrekin lotuta, hiriko hainbat eremutan hobekuntzak egin dira, hala nola Gurutzen, 36 linearekin zerbitzua baitu orain; Herrera eremu osoan, 31 linearekin; Garro Zubitik gertuko eremuan, geltoki berriarekin; Euskadi Plazan geltoki berria 9 linearako; Berion gaueko zerbitzua zabaldu da, eta Tolaregoia eta Gabriel Aresti eremuan, Egian, orain gautxori zerbitzua eskaintzen da.

Irailtik aurrera aplikatuko diren ordutegi eta geltokien aldaketak honako hauek dira:

1. 37 LINEA: LANEGUNETAN GOIZEKO LEHEN ZERBITZUAK AURRERATZEA

2014ko irailaren 1etik aurrera, DBUSEk 5 minutu aurreratuko ditu 37. lineako lehen bi zerbitzuak bi geltoki nagusietan, Groseko eta Zorroagako ikastetxeetara (Jesuitak, Zurriola Ikastola) joaten diren erabiltzaileei garraio publikoaren erabilera ahalbidetzeko.

Neurri horrekin, lanegunetako lehen irteerak honela geratuko lirateke:

- **Rodiletik: 7:25, 7:55 eta 8:30.** Ondoren, 8:30etik 21:30era arte, orain arteko ordutegiak mantenduko dira, hau da, 30 minutuz behin (xx:00' eta xx:30')
- **Mendigainetik: 7:25, 7:55 eta 8:30.** Ondoren, 8:30etik 21:30era arte, orain arteko ordutegiak mantenduko dira, hau da, 30 minutuz behin (xx:00' eta xx:30')

2. 41 LINEA: ORDUTEGI ALDAKETA JAIEGUNETAN

Irailetik aurrera, irailaren 7an, igandean, hasita, DBUSEk 41 linearen ordutegiak aldatuko ditu jaiegunetan, gaur egungoak 10 minutu aurreratuta. Honela geratuko dira ordutegiak:

- **Martutenetik: xx:40'** (60 minutuz behin, 10:40tik 20:40 arte)
- **Grosetik: xx:05'** (60 minutuz behin, 11:05etik 21:05 arte)
- 41 lineako ibilbideko pasabideko ordutegi guztiak Txomin, Loiola, Erriberak, Egia eta Grosen ere 10 minutu aurreratuko dira jaiegunetan.

Neurri horrekin, 41 lineak hirigunera doan 26. linearekin bat egitea eragotziko da, eta jaiegunetan hirigunera doazen autobusen zerbitzu handiagoa eskainiko zaie Martuteneko, Txomineko, Loiolako eta Erriberako bizilagunei.

Gainontzeko egunak (Astegunetan eta larunbatetan) 41 linearen ohizko ordutegiak mantentzen dira

3. 13 LINEA: GELTOKI BERRIAK LEOSIÑETAN

2014ko irailaren 1etik aurrera, DBUSEko 13. lineak bi geltoki berri egingo ditu Leosiñetan, eremuko bizilagunei eta gertuko ikastetxeko erabiltzaileei zerbitzua emateko. . Leosiñeta kalea Altzan dago, Larratxo eta Lauaizeta bitartean.

Hirigunerantz geltoki berria izango da, eta Larratxorantz aurretik 24 eta 33 lineetarako dagoen geltokian izango du geltokia, orain 13. lineak ere erabiliko baitu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri Dbus-ekin harremanetan **943-000200** zenbakira deituta edo www.dbus.es webgunearen bitartez